



<b>IKASTETXEA</b>	<b>AIXERROTA BHI</b>	<b>KODEA</b>	<b>015109</b>
<b>Arloa/ Irakasgaia</b>	<b>MUSIKA</b>	Zikloa / Maila	DBH 4
<b>Irakasleak</b>	<b>Almudena Martínez</b>	Ikasturtea	2015~16

<b>HELBURUAK</b>	<b>EBALUAZIO - IRIZPIDEAK</b>
<ol style="list-style-type: none"><li>Musika-lanak ahoz nahiz musika-tresnekin interpretatzea, bakarrik edo taldean, oroimenari, partituren irakurketari eta inprobisazioari dagozkien gaitasun eta trebetasunak garatzeko.</li><li>Musikaren hizkuntza osatzen duten alderdi guztiak —harmonia, melodia, erritmoa, eraketa, forma, tenpoa eta dinamika— ondo erabiltzea, musika ulertu, interpretatu, iruzkindu eta sortzeko.</li><li>Beren musika-sorkuntzekiko konfiantza garatzea, sorkuntza-prozesuaz gozatuz eta bai norberaren bai taldearen hazkuntzari egiten dioten ekarpena aintzat hartuz</li><li>Ondo afinatuz abestea, oinarritzko ahozko teknika garatzeko</li><li>Musikaren pulstua erritmo desberdinak landuz barneratzea, mugimenduaren koordinazioa garatzeko.</li><li>Musikaren hizkuntzaren oinarritzko osagaiak landu eta ezagutzea, musika-alor hauetan: klasikoa, popa, rocka, Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako musika. Horretarako, estilo horietako lanak entzun eta identifikatzea, norberaren erreperitorioan sartu eta erreperitorio hori aberasteko.</li><li>Musikaren gizarte-eginkizunen eta erabilpenen berri eta beste hizkuntza artistikoekin, jakintza-arloekin eta, horrez gainera, ikus-entzunezko hedabideekin eta komunikabideekin dituen loturen berri izatea</li><li>Estilo, genero, joera eta kultura askotako musika-lanak erabiltzen dituzten tekniken, baliabideen eta konbentzioen berri izan eta aztertzea</li><li>Musikaren berri izan eta musikaz gozatzeko baliabideak daitezkeen informazio-iturriak (fonotekak, ikus-entzunezko hedabideak, Internet, testuak, partiturak eta beste baliabide grafiko batzuk) modu autonomo eta</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>Obra bat entzutean soinu-zuko mezuaren ideiarik garrantzitsuenak bereizten jakitea, aurretiaz jasotako araubideei jarraituz.<ol style="list-style-type: none"><li>Musika-lanaren balioa zein den jakin, obraren zailtasun teknikoa gora behera.</li><li>Soinuzko mezuaren alderdirik garrantzitsuenei erreparatu, topikoak alde batera utziz.</li><li>Entzuten ari den obra zein motatakoa den jakin.</li></ol></li><li>Musika-lana kritikoki entzutea, eta formaren nahiz edukiaren aldetik aztertu ahal izatea.<ol style="list-style-type: none"><li>Entzunaldiaren aurretik ezarritako entzute-irizpideak entzundakoarekin lotu.</li><li>Azaldutako musika-ideiak entzunaldian aurkitu.</li><li>Obran parte hartzen duten instrumentuak bereizi.</li><li>Entzunaldian, ageri diren soinu-bolumenak alderatu.</li></ol></li><li>Entzute-jardueretan soinuaren iturria zen den jakitea, mailaren arabera soinuaren eta tinbreen mapa bat eginez.<ol style="list-style-type: none"><li>Ahotsaren soinua instrumentuenetik bereizi.</li><li>Obraren eskema bat egin, obrako tinbre ezberdinei jarraituz.</li><li>Multzo instrumentalak bereizi.</li><li>Ahotsaren tesiturak bereizi.</li><li>Instrumentu-familietako instrumentuak ezberdindu.</li><li>Musika-tresnak sailkatu, sailkapen koherente baten arabera.</li></ol></li><li>Obra baten estiloa eta garaia zein den jakitea, musikaren ehundurari eta instrumentuen eta ahotsaren erabilerrari dagozkion parametroei jarraituz.</li></ol>



<p>kritikoan erabili eta kudeatzea.</p> <p>10. Hainbat testuingurutan taldeko musika-proiektuetan parte hartzea, taldearen barruan eginkizun ezberdinak hartuz, plangintzarako, elkarlanerako, koordinaziorako eta talde-lanaren ebaluaziorako gaitasunak garatu eta, horrela, ekoizpen artistiko gogobetegarri bat lortzeko</p> <p>11. Adierazpideak berritzen eta gordetzen laguntzeko, Euskal Herriko zein beste herri batzuetako kultura-ondarearen arte- eta musika-adierazpenen berri izatea eta horiek aintzat hartzea</p> <p>12. Ikus-entzunezko hedabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien berri izan eta erabiltzen jakitea bai musika sortzeko, bai norbere kabuz ikasteko eta bai musikaz gozatzeko</p>	<p>4.1. Entzundako obra garaiaren ezaugarriekin lotu.</p> <p>4.2. Obra baten konposizioko osagaiengatik obraren estiloa zein den jakin.</p> <p>4.3. Entzunaldietan konposizio-mota ezberdinei buruzko informazioa erabili.</p> <p>4.4. Lan baten ideiarik garrantzitsuenak zeintzuk diren jakin.</p> <p>4.5. Obraren ezaugarri musikalei buruz hitz egiteko eta azaltzeko musikako lexikoa erabili</p> <p>5. Banaka eta taldeka musika-lanak interpretatzea, une bakoitzean musika-mota jakin batek eskatzen dituen interpretazio-ezaugarrietara moldatzen jakinda.</p> <p>5.1. Musika-hizkuntzari buruzko ezaguerak interpretazioan erabili.</p> <p>5.2. Obrak lantzea, behar bezala interpretatzeko</p> <p>5.4. Ahotsa taldera ondo moldatzeko moduan erabili.</p> <p>5.5. Taldeko interpretazioak eskatzen duen arreta izan.</p> <p>6. Melodia edo abesti bat ahotsa ondo igorri intonatzea, bakarka nahiz taldean, akonpainamenduarekin nahiz akonpainamendurik gabe.</p> <p>6.1. Ea ahozko teknika erabiltzen duen, bakarka nahiz taldean ondo intonatuz eta afinatuz abesteko</p> <p>6.2. Ea ondo txertatzen den ahots-taldean, beste ahotsekin bat egiteko beharrezko baliabideak erabiliz</p> <p>6.3. Ea behar bezala intonatzen duen pasarte edo melodia bat.</p> <p>7. Ariketa psikomotorrak egitea eta erritmo-egiturak inprobisatzea, bakarka nahiz taldean, entzundako pasarte batean oinarrituta</p> <p>7.1. Ea musikaren bidez garatzen duen gaitasun afektiboa</p> <p>7.2. Ea nahi bezala inprobisatzen duen ezagutzen diren erritmo-formuletan oinarrituta, eta entzundako pasartearen</p>
--	---



konpasarekin bat eginez.

7.3. Ea ariketa psikomotorrak proposatu eta egiten dituen, ikuspegi kreatibo eta adierazkorretik parte hartuz

## EDUKIEN SEKUENTZIA ( denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

### 1.ebaluazioa

1. Partitura: osatzen duten elementuak, grafia motak eta interpretazioan betetzen duten funtzioa.
2. Jazza
3. Gaur egungo musika motak: pop, rock, reggae, heavy ...
4. Bertsoak errimatzeako oinarritzko arauak

### 2.ebaluazioa

5. Euskal Herriko soinu tresnak
6. Euskal Herriko kanta tradizionala
7. Agate Deunaren ohiturak Euskal Herrian
8. Munduko bertsolaritza

### 3.ebaluazioa

9. Musika komunikabideetan
10. Musika eta zinema.Soinu bandak
11. Landutako erreperorioa jendaurrean interpretatzea, ezaugarri hauetan oinarrituz: autokontrola, autoestimua errespetua garapena eta norberaren buruarekiko eta norberaren eta gainerakoen arte-sorkuntzekiko errespetua

## METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Erabiliko dugun metodologia aktiboa eta parte hartzeko izango da.

Orff musika tresnekin, boomwhackersekin, txirularekin, kitarra eta beste musika tresna batzuekin, ahotsarekin, gorputzarekin ariketa erritmikoak eta melodikoak landu

XX mendeko Musika estilo ezberdinak entzun eta analizatu.

Gainera, astean behin aholkulari baten laguntza izango dugu musika eta bertsolaritza uztartzeko asmotan. Ikastetxeko jai eta egun berezien inguruan antolatuko ditugu jarduerak (kantak, koreografiak, gorputz perkusioak, euskaraokoa....)

Tics tresnak landuko dituzte: Bloga (Blogspot.com), Popplet, edugloster, Prezzi... Lanak aurkeztuko dira Blogaren bidez.

**EBALUAZIO TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK**  
[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]



Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da. Kontuan izanda gure ikasleak entzule eta ekoizle izango direla, eguneroko lana eta partehartzea oso garrantzitsua izango da. Ikaslearen koadernoak, lanak, ariketak, laburpenak, sormena eta interpretazioa (kantagintza, dantza eta musika tresnak erabiltzean) ebaluazio tresnak bihurtuko dira.

Ebaluaketa bakoitzean azterketa bat egon daiteke, **4 puntu** balio izango duena. Azterketak eredu desberdinetakoak izan daitezke (Test modukoak, galdera luzeak, laburrak, gaiak garatu....) .

Horretaz gain, ebaluazioan zehar egindako ariketa praktikoko guztiak puntuatuko ditu irakasleak eta aintzat hartuko dira ebaluazioaren nota ipintzeko (**5 puntu**), horrela banatuta: **Blogaren Lanak 1,5; Polirritmiak, abestu, perkusio korporala, txirula... 1,5; Munduko bertsolaritzan garatutakoa, 2 puntu**

Azterketa teoriko egingo ez balitz, 9 puntu emango genioke atal honi.

Klasean izandako jarrera (partehartzea, materiala, puntualitatea, etxerako lanak egitea...) **puntu 1**

## EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak,

antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena,errekuperazio-sistema...]

Ebaluaketa gaitzitu ez duten ikasleentzat froga desberdinak egongo dira, berreskuratu behar diren zatiak desberdinak direlako (teoria ala praktika).

- Azterketa teorikoa suspenditu ezker, berreskurapena egin beharko da.
- Ariketa praktikokoak ez gaitzitezotan, berreskurapena ere egin beharko da.

Ebaluazio bat gaitzitzeak ez du suposatzen aurreko guztia gaitzituta dagoenik.

Ohiko deialdiko nota ipintzeko, azterketaz gain, ikasleak kurtsoan zehar izandako garapena eta prozesu osoa begiratu da

Ebaluazio bat gaitzitzeko,derigorrezkoa da ebaluazio horretan agindutako lan guztiak aurkeztuta eta zuzenduta egotea.

**EZOHIKO AZTERKETA:** Gutxiengo edukiak ebaluatuko dira, bai arlo teorikoan zein praktikoan. Hori dela eta kalifikaziorik altuena "5" izango da.

Azterketa honetan, zati teoriko bat egongo da eta ikasturtean landutako partitura edo abesti bat interpretatu beharko da

## OHARRAK

### ERABILIKO DIREN BALIABIDEAK:

- Irakasleak prestatutako apunteak
- Partitura desberdinak
- Ordenagailua, kanoia, internet
- Musika tesna desberdinak: ORFF instrumentuak, teklatura.....



- Juan Mari Beltranen "Euskal Herriko soinu tresnak" CDRom-a

-**Baliabide digitalak:** Audacity programa; ikasmus.netau.net; youtube, Bloga.